

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**DIPUTATU NAGUSIAREN KABINETEA**

2010eko maiatzaren 25eko 15/2010 FORU DEKRETUA, 2008ko uztailaren 29ko 66/2008 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustialekuetako lehiakortasuna eta ingurumen iraunkortasuna hobetzeko laguntzak ezartzen dituen, aldatzekoa.

2008ko abuztuaren 12ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN -153. zk.- argitaratu zen 2008ko uztailaren 29ko 66/2008 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustialekuetako lehiakortasuna eta ingurumen iraunkortasuna hobetzeko laguntzak ezartzekoa, Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtzak (FEADER) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak batera finantzatutako laguntzak nahiz foru aurrekontuen kargura bakarrik ematen diren estatuko laguntzak arautzen dituen. Neurri horiek guztiak Europako Batzordeak 2008ko otsailaren 15ean, gai horren inguruko araudi berriaren arabera, onartutako 2007/2013 Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Planean bildu dira.

Foru dekretu hori 2008ko urriaren 14ko 73/2008 Foru Dekretuak (198. zk.ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2008ko urriaren 15ekoa) eta 2009ko martxoaren 17ko 9/2009 Foru Dekretuak (55. zk.ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2009ko martxoaren 24koa) aldatu zuten.

Orain, 2008ko abenduaren 23ko 17/08 Legea, Nekazaritza eta Elikagaien Politikari buruzkoa, indarrean sartu zenez, 66/2008 Foru Dekretuko hainbat artikuluko lege horrek xedatutakora egokitu behar dira.

Bestalde Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko 2007-2013 Planaren Jarraipen Batzordeak erabaki zuen Programaren jatorrizko idazketan aldaketa batzuk egitea, Europako Batzordeak 74/2009 Erregelamenduaren bidez (1698/2005 Erregelamendua aldatzekoa) eta 363/2009 Erregelamenduaren bidez (1974/2006 Erregelamendua aldatzekoa) ezarritako eduki berrietara egokitu behar zelako. Esan beharra dago Europar Batasuneko Nekazaritza Kontseiluak «Nekazaritza Politika berraztertze» lortu zuen akordio politikoak, nahiz Europako Kontseiluak 2008ko abenduaren 12an onartutako Ekonomia Suspertzeko Europako Planak (ESEP) izan dituzten ondorio zuzenak izan direla Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtzari (FEADER) funtsa gehigarriak erantsen eta landa garapenerako nazio eta erregio programei eragiten dieten aldaketa garrantzitsuak sartzea. Programaren hirugarren aldaketa hori Batzordearen 2010eko martxoaren 2ko C(2010)1228 Erabakiaren bidez onartu zen ofizialki. Nekazaritza eta basogintza sektorearen lehiakortasuna areagotzeko 1. ardatzeko neurrietan aurreikusitako aldaketen artean dago diru laguntzak jasotzeko lehentasunezko inbertsioetat jotzea hegazti erruleen sektorean ohiko bateriak eta bestelako elementuak birmoldatzeko direnak, oilo erruleak babesteko gutxieneko arauak ezartzen dituen Europako Kontseiluaren 1999ko uztailaren 19ko 1999/74/CE Direktiba betetzearen. Halaber, FEADER Funtseko funts berrien %19,5 esne sektorea berregituratzeko eta esne ekoizpenari lotutako inbertsioetarako erabiliko da, horiek ere lehentasunezko proiektutzat joko baitira diru

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA**GABINETE DEL DIPUTADO GENERAL**

DECRETO FORAL 15/2010, de 25 de mayo, por el que se modifica el Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio, de Ayudas para la mejora de la competitividad y la sostenibilidad medioambiental de las explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Con fecha 12 de agosto de 2008 se publicó en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 153 el Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio, de Ayudas para la mejora de la competitividad y la sostenibilidad medioambiental de las explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que establece las bases reguladoras tanto de las ayudas cofinanciadas por el Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER) y la Diputación Foral de Gipuzkoa, como de las denominadas ayudas estatales, cuya financiación se produce exclusivamente con cargo a los presupuestos forales; todas ellas derivadas de las medidas recogidas en el Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2007-2013 (PDRS), aprobado por la Comisión Europea mediante Decisión de 15 de febrero de 2008, de acuerdo con la nueva reglamentación europea en la materia.

Dicho Decreto Foral, fue modificado por los Decretos Forales 73/2008, de 14 de octubre, (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 198 de fecha 15 de octubre de 2008) y 9/2009, de 17 de marzo (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 55 de fecha 24 de marzo de 2009).

Actualmente, al entrar en vigor la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria, resulta obligada la adaptación de algunos de los artículos del Decreto Foral 66/2008 a lo establecido en la misma.

Por otra parte, el Comité de Seguimiento del PDRS del País Vasco 2007-2013 acordó solicitar nuevos cambios en la redacción original del Programa, motivados por la obligación de adaptarlo a los nuevos contenidos establecidos por la Comisión Europea mediante el Reglamento 74/2009 por el que se modifica el Reglamento 1698/2005 y el Reglamento 363/2009 por el que se modifica el Reglamento 1974/2006. Cabe señalar que tanto el acuerdo político sobre el «chequeo médico de la PAC» que alcanzó el Consejo de Agricultura de la Unión Europea, como el Plan Europeo de Recuperación Económica (PERE) aprobado por el Consejo Europeo el 12 de diciembre de 2008, han tenido como consecuencia directa la inclusión de fondos adicionales al FEADER y modificaciones importantes que afectan a los programas nacionales y regionales de desarrollo rural. Esta 3.ª modificación del programa fue aprobada oficialmente mediante Decisión de la Comisión C(2010)1228 de 2 de marzo de 2010. Entre las modificaciones contempladas en las medidas del Eje 1 (aumento de la competitividad del sector agrícola y forestal), está la consideración que como inversiones prioritarias para la concesión de la ayuda, se otorgará a las ligadas a la reconversión de las baterías convencionales y otros elementos en el sector de aves de puesta, motivada por la aplicación de la Directiva 1999/74/CE, del Consejo, de 19 de julio de 1999, por la que se establecen las normas mínimas de protección de las gallinas ponedoras. Asimismo se destinará un 19,5% de los nuevos fondos FEADER, para la reestructuración del sector lácteo, y para las ayudas a las inversiones vinculadas a la

laguntzak ematerakoan. Ingurumena eta natura ingurunea hobetzeko II. ardatzeko neurriei dagokienez, FEADER Funtseko funts berrien %24,2, hau da 1.221.212 € guztira, biodibertsitatea bultzatzeko erabiliko da ingurumeneko diru laguntzen bitartez; horietatik 756.949 € bertako animalia arrazak kontserbatzeko eta Euskal Herriko sagardotarako sagarrondoentzako bariatateak kontserbatzeko neurrietarako xedatuko dira.

Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneetako Ministerioak, landa garapenerako programen kudeaketako agintaritzak koordinatzen dituen erakunde gisa, besteak beste, bere egitekoen artean eta FEADER Funtseko emandako laguntzen koherentzia bermatzearren, Europako xedapenen aplikazio harmonizatua egitea duenak, oinarritzko arau izaeraz argitaratu zuen 2009ko abenduaren 4ko 1.852/2009 Errege Dekretua, Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtseko (FEADER) finantzatzeko Landa Garapenerako Programen barruan gastuak diruz laguntzeko irizpideak ezartzen dituena. Hain zuzen ere aipatutako errege dekretuak zehazten ditu gastuak diruz lagundu ahal izateko oinarritzko arauak, baita ordainketa ondorioetarako gastu horiek zuzitzeko beharrezkoak diren agiriak ere.

Era berean, 66/2008 Foru Dekretuaren 43. artikuluan zuzenketa bat egin behar da, aurreko idazketan ez baitziren sartu landa inguruen eta bertako biztanleen beharrak asetzeko oinarritzkoak diren zerbitzuetarako laguntzak (baserrietako umeentzako eskola garraioa, zaborren eta negutegietako eta siloraketako plastikoen bilketa, landa eremuetan postontziak jartzea, informazio panelak, bideetako sastrakak kentzea, arekak garbitzea, etab.), ezta Landa Garapenerako Eskualdeko Elkarteek kudeatzen dituzten jarduerak eta elkarte horietako langileen eta bulegoen funtzionamendu gastuak ere.

Bukatzeko, sagardorako sagarrondoaren landaketari, zaindari, hobetzeari eta garatzeari diru laguntzak emateari dagokienez, oinarri arautzaileak 66/2008 Foru Dekretuaren testuan bertan garatuko dira II. tituluan kapitulu berri bat sartuta eta oinarri horiek urtero foru agindu baten bidez garatzeko egiten den aipamena ezabatuta, horrela laguntza horiek arautzeko sistematika hobetu egiten baita.

Inguruabar horiek direla eta berriz aldatu behar da 2008ko uztailaren 29ko 66/2008 Foru Dekretua. Halaber, 2010erako deialdia egin behar da hainbat diru laguntza eskuratzeko eskararak aurkezteko, hala nola, nekazaritza ustialekuak modernizatzeko diru laguntzak (I. tituluko II. kapitulua), nekazari gazteak nekazaritza ustialekuetan sartzeko diru laguntzak (I. tituluko III. kapitulua), eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan sagardorako sagarrondoak landatu, zaindu, hobetu eta garatzeko diru laguntzak (II. tituluko VII. kapitulua). Era berean, ekitaldi honetan diruz laguntzekoak diren inbertsioak baloratzeko ezarriko diren moduluak zehaztu behar dira.

Horregatik, Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran alde zuzenetik eztabaidatu eta onartu ondoren

producción lechera, que también tendrán la consideración de proyectos prioritarios para la concesión de la ayuda. En cuanto a las medidas del Eje II (mejora del medio ambiente y del entorno rural), se dedica un 24,2% de los nuevos fondos FEADER, en total 1.221.212 €, como apoyo a la biodiversidad a través de ayudas agroambientales, de los que 756.949 € se asignarán a las medidas de conservación de razas animales locales y conservación de variedades locales de manzanos de sidra del País Vasco.

El Ministerio de Medio Ambiente, y Medio Rural y Marino, como organismo de coordinación de las autoridades de gestión de los programas de desarrollo rural, al que, entre otras funciones, corresponde la aplicación armonizada de las disposiciones comunitarias, en orden a garantizar la coherencia de la ayuda prestada por el FEADER, publicó con carácter de norma básica el Real Decreto 1.852/2009, de 4 de diciembre, por el que se establecen los criterios para subvencionar los gastos en el marco de los Programas de Desarrollo Rural cofinanciados por el Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER), que en su articulado establece las normas básicas de subvencionabilidad de los gastos, así como la documentación precisa para su justificación a efectos de pago.

Igualmente se hace necesario subsanar en el artículo 43 del Decreto Foral 66/2008 el hecho de no haber incluido en la anterior redacción las ayudas relativas a los servicios básicos destinados a satisfacer las necesidades de las zonas rurales y su población (transporte escolar de niños residentes en caseríos, recogida de basuras y plásticos de invernaderos y ensilados, instalación de buzones rurales, paneles de información, desbroces de caminos y limpieza de cunetas, etc.) y demás actuaciones que gestionan las Asociaciones Comarcales de Desarrollo Rural, así como los gastos anuales de funcionamiento referentes al personal y oficinas de las mismas.

Por último, y en relación con las ayudas a la plantación, mantenimiento, mejora y desarrollo del cultivo del manzano de sidra, se procede a desarrollar sus bases reguladoras en el propio texto de Decreto Foral 66/2008, mediante la introducción de un nuevo capítulo en el Título II, suprimiendo la remisión al desarrollo de las mismas mediante orden foral anual, mejorando así la sistemática de la regulación de dichas ayudas.

Estas circunstancias son las que motivan la presente modificación del Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio, haciéndose preciso, asimismo, convocar para el ejercicio 2010 los plazos de presentación de solicitudes para acceder a las ayudas a la modernización de las explotaciones agrarias (Capítulo II del Título I), a las ayudas para la incorporación de agricultores y agricultoras jóvenes a las explotaciones agrarias (Capítulo III del Título I) y a las ayudas a la plantación, mantenimiento, mejora y desarrollo del cultivo del manzano de sidra en el Territorio Histórico de Gipuzkoa (Capítulo VII del Título II); se establecen, también los módulos a aplicar para la valoración de las inversiones para las que se solicite ayuda en el presente ejercicio.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral del Departamento de Desarrollo del Medio Rural, previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados en sesión del día de la fecha

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. 2008ko uztailaren 29ko 66/2008 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustialekuetako lehiakortasuna eta ingurumen iraunkortasuna hobetzeko laguntzak ezartzen dituen, aldatzea.

2008ko uztailaren 29ko 66/2008 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustialekuetako lehiakortasuna eta ingurumen iraunkortasuna hobetzeko laguntzak ezartzen dituen, modu honetan aldatzen da:

Bat. 14. artikularen 1. atalean egindako aldaketak:

1.1 puntuaren oraingo idazketaren ordez Nekazaritza eta Elikagaien Politikari buruzko 2008ko abenduaren 23ko 17/2008 Legean xedatutakoaren arabera ondorengo idazketa hau jarriko da:

«1.1. Ustialekuko titularraren errenta osoaren %50 gutxienez nekazaritza jardueretatik edo ustialekuan gauzatu-tako bestelako jarduera osagarrietatik etortzea, betiere bere ustialekuan egindako nekazaritza jardueratik zuzenean datorren errentaren zatia errenta osoaren %25 baino txikiagoa ez baldin bada eta nekazaritza jardueretan edo bestelako jarduera osagarrietan emandako denbora bere denbora edo lan osoaren erdia baino handiagoa baldin bada. Nekazaritza jardueratzat jotzen dira nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako produktuak lortzeko egin beharreko lanak, produktu horien eraldaketa, ontzi-raketa eta salmenta barne hartuta, baldin eta ustialekuaren barruan egiten badira; era berean halakotzat joko dira ustialekua mantentzeko egin beharreko lanak. Nekazaritzako jarduera osagarrietatik jotzen dira ustialekuko titularraren partaidetza eta presentzia elkarte, kooperatiba nahiz lanbide izaerako ordezkaritza organoetan, betiere, nekazaritza sektoreari, ingurumeneko eta landa garapeneko ondasun eta zerbitzuen ekoizpenari, turismo, artisau eta ehiza jarduerari edo ustialekuan egindako dibertsifikazio jarduerari (energia berriztagarriaren ekoizpena) lotuta baldin badaude».

1.6 puntuan d) letra eransten da:

«d) Nekazaritza jardueran aritutako urteen egiaztagiria, ondorengo bat edo gehiagoren bitartez egiaztatuko da: Ustialeku bateko titular, titularkide edo familia laguntzaile gisa Nekazaritza Ustialekuen Erregistroan inskribatuta egondako urteen ziurtagiria; nekazaritza ustialekuetan bekadun gisa egindako denboraren egiaztagiria; nekazaritza ustialekuetan egindako lanen kontratuak (edo nominak); Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Erregimen Berezian edo Nekazaritzako Sistema Berezian kotizatutako urteen ziurtagiria; Errenta zergan egindako nekazaritza irabazien aitortpena. Guztira, bost urteko antzinatasuna egiaztatu beharko da (bi urte nekazari gazteak izanez gero).»

Bi. 15. artikuluko 1. atala ezabatzen da, ondorioz 2, 3 eta 4 atalak 1, 2 eta 3 izango dira aurrerantzean.

Hiru. 16tik 21era bitarteko artikulua (biak barne) modu honetan gelditze dira idatzita:

«16. artikulua. Inbertsioak bete beharreko baldintzak.

1. Egingo diren inbertsioek nekazaritza ustialekuaren errendimendu orokorra hobetu beharko dute eta inbertsioei aplikatzekoak diren Europar Batasuneko arauak eta ustialeku motaren arabera dagozkien edo ezar dakizkiekeen berariazko arauak bete. Ustialekuaren errendimendu orokorreko hobekuntza hori Hobekuntza Plana aurkeztuta kreditatu beharko da, eta, honako alderdi hauek jasoko ditu:

a) Proiektatutako inbertsioen memoria baloratua, abiapuntuko egoera, proiektuaren fase ezberdinak gauzatzeko egutegia eta lortu nahi diren helburu zehatzak adierazita.

DISPONGO

Artículo único. Modificación del Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio, de Ayudas para la mejora de la competitividad y la sostenibilidad medioambiental de las explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Se modifica el Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio, de Ayudas para la mejora de la competitividad y la sostenibilidad medioambiental de las explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en los siguientes términos:

Uno. Modificaciones en el apartado 1 del artículo 14:

Se sustituye la redacción actual del punto 1.1. por la siguiente redacción acorde con lo establecido en la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria:

«1.1. Que al menos el 50% de la renta total de la persona titular de la explotación, provenga de actividades agrarias o de actividades agrarias complementarias, siempre y cuando la parte de renta procedente directamente de la actividad agraria realizada en su explotación no sea inferior al 25% de su renta total y el tiempo de trabajo dedicado a actividades agrarias o agrarias complementarias sea superior a la mitad de su tiempo de trabajo total. Se entiende por actividades agrarias el conjunto de trabajos que se requiere para la obtención de productos agrícolas, ganaderos y forestales, incluida su transformación, envasado y comercialización, siempre y cuando estas últimas se ejerzan dentro de una explotación, así como los trabajos que se requieran para el mantenimiento de una explotación. Por actividades agrarias complementarias se entiende la participación y presencia de la persona titular de la explotación en órganos de representación de carácter asociativo, cooperativo o profesional, siempre que éstos se hallen vinculados al sector agrario, la obtención de bienes y servicios medioambientales y de desarrollo rural; las turísticas, cinegéticas, artesanales y otras actividades de diversificación realizadas en su explotación, tales como la producción de energía renovable».

Se incluye en el punto 1.6. una nueva letra d):

«d) La acreditación de los años de experiencia en la actividad agraria se realizará mediante justificante de los años de inscripción en el Registro de Explotaciones Agrarias como titular, cotitular o ayuda familiar de una explotación agraria y/o estancia como becario en explotaciones agrarias, contratos de trabajo (o nóminas) en una explotación agraria, certificado de los años de cotización al REASS o Sistema Especial Agrario y/o declaración de rendimientos agrarios en el IRPF, hasta totalizar en conjunto los cinco años de antigüedad (dos años en el caso de jóvenes agricultores).»

Dos. Se elimina el apartado 1 del artículo 15, por lo que los apartados 2, 3 y 4 pasan a ser 1, 2 y 3.

Tres. Los artículos 16 al 21, ambos incluidos, quedan redactados en los siguientes términos:

«Artículo 16. Requisitos que debe cumplir la inversión.

1. Las inversiones que se realicen deberán mejorar el rendimiento global de la explotación agraria y cumplir las normas comunitarias aplicables a la misma y las específicas que le correspondan o se puedan establecer en función del tipo de explotación. La mejora del rendimiento global de la explotación deberá ser acreditada a través de la presentación de un Plan de Mejora, que incluya los siguientes aspectos:

a) Memoria valorada de las inversiones proyectadas con indicación de la situación de partida, calendario de ejecución de las distintas fases del proyecto y objetivos concretos a conseguir.

b) 100.000 €-tik gorako inbertsio proiektuen kasuan, proiektatutako inbertsioen azterlan bat aurkeztuko da, proiektuaren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatuko duen Kudeaketa Zentro batek egina, eta abiapuntuko egoeratik ustialekuak errendimendu orokorrean izandako hobekuntza kuantifikatuko da.

c) Ustialekuan sortutako hondakinak tratatzeari eta ezabatzeari buruzko araudia betetzen dela eta paisaiari dagozkion alderdiak errespetatzen direla bermatzeko neurriak.

2. Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak, proiektatutako inbertsioaren zenbatekoa eta ustialekuaren egoera kontuan hartuta beharrezkotzat iritziz gero, proiektatutako inbertsioa gauzatzeko eskatzaileak duen kaudimen ekonomikoa eta finantzarioaren inguruko banku-bermeak eskatu ahal izango ditu.

3. Inbertsioak Europako Batasuneko araudia betetzeko xedez egiten badira, ingurumenarekiko babes, elikagaien segurtasun, ibilbide, osasun publiko, abre eta landareen sanitare, abereen higie eta ongizate eta laneko segurtasunari buruzko arau komunitarioak betetzera zuzendutako inbertsioak soilik subentzionatu ahal izango dira, eta nekazaritza ustialekuetako titularrei arauak betez ustialekuak egokitzeko 36 hilabete arteko epea emango zaie, arau horiek derrigorrezko izatera igarotzen diren datatik kontatzen hasita.

4. Lehenengo instalaziorako laguntzaren onuradun diren nekazari gazteen kasuan, diru laguntzak emango dira beren ustialekuak arau komunitarioen arabera egokitzeko inbertsioetarako, betiere, inbertsio horiek nekazari gazteak aurkeztutako enpresa planean ageri badira. Kasu horretan, arau horiek betetzeko eman daitekeen gehieneko epea ezin izango da 36 hilabetekoa baino handiagoa izan, instalatzen den datatik kontatzen hasita.

5. Egingo diren inbertsioak Gipuzkoako Lurralde Historikoan gauzatu dira.

6. Subentziona daitekeen gutxieneko inbertsioa 6.000,00 eurokoa izango da xede bakoitzeko.

7. Gauzako inbertsioei dagokienez, laguntzak hobekuntza proiektua ezartzeko norberak egindako lanaren kostuetara mugatuko dira.

8. Finantza errentamenduko kontratu bat dagoenean, errentatzaileak egindako aktiboen erosketa subentzionatu ahal izango da, betiere, erosketa aukera bat jaso edo kontratuan aipatutako aktiboaren bizitza erabilgarriaren adinako errentamenduko gutxieneko epe bat ezartzen bada.

9. Subentzioari begira, ez dira laguntza eskaera baino lehenagoko inbertsioak kontuan hartuko, materialen bilketa, ordain-sari tekniko eta bideragarritasun azterketei dagozkienak izan ezik.

10. Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak laguntza eskaera onartu ondoren, gehienez ere urtebeteko epean gauzatu beharko dira diruz lagundutako inbertsioak. Arrazoi egiaztatuak daudenean, epe hori luzatu ahal izango da onuradunak eskatuz gero.

11. Subentzionatutako inbertsioak 10 urtez gutxienez mantendu beharko dira aktibo ustialekuan, eraikuntza eta instalazio finkoak zein fruta arbolen landaketak jasotzen dituztenean, eta 7 urtez, nekazaritza makineriaren erosketa soilik baldin bada.

b) Para proyectos de inversión cuyo importe supere los 100.000 €, se aportará un análisis de las inversiones proyectadas, redactado por un Centro de Gestión, que acredite la viabilidad del proyecto desde los puntos de vista técnico, económico y financiero, cuantificando la mejora del rendimiento global de la explotación respecto a la situación de partida.

c) Medidas que garanticen el cumplimiento de la normativa vigente relativa al tratamiento y eliminación de los residuos producidos en la explotación y el respeto a los aspectos paisajísticos.

2. El Departamento de Desarrollo del Medio Rural, si así lo considera en función del importe de la inversión proyectada y la situación de la explotación, podrá demandar a la persona solicitante garantías bancarias suficientes en cuanto a su solvencia económica y financiera para llevar a cabo la inversión proyectada.

3. En el caso de que las inversiones se realicen a efectos de cumplir las normas comunitarias, sólo se beneficiarán de las ayudas las inversiones destinadas al cumplimiento de las nuevas normas comunitarias sobre protección del medio ambiente, seguridad alimentaria, trazabilidad, salud pública, sanidad animal, fitosanidad, higiene y bienestar de los animales y seguridad en el trabajo, concediéndose a los titulares de explotaciones agrarias un plazo no superior a 36 meses a partir de la fecha en que dichas normas pasen a ser obligatorias para adecuar sus explotaciones al cumplimiento de las mismas.

4. En el caso de los jóvenes agricultores beneficiarios de la ayuda a la primera instalación, se concederá ayuda para las inversiones destinadas a la adecuación de sus explotaciones a las normas comunitarias existentes, siempre y cuando dichas inversiones figuren en el plan empresarial presentado por el joven agricultor. En este caso, el plazo máximo que se puede conceder para el cumplimiento de dichas normas no podrá ser superior a los 36 meses desde la fecha de su instalación.

5. Las inversiones a realizar se materializarán en el Territorio Histórico de Gipuzkoa

6. La inversión mínima subvencionable por finalidad será de 6.000,00 euros.

7. En el caso de inversiones en especie, las ayudas se limitarán a los costes del trabajo propio efectuado para implantar el proyecto de mejora.

8. En los casos en que exista un contrato de arrendamiento financiero, será subvencionable la compra de activos por parte del arrendador, siempre y cuando en el contrato se incluya una opción de compra o se establezca un periodo mínimo de arrendamiento igual al de la vida útil del activo al que se refiere el contrato.

9. A efectos de subvención, no se tendrán en cuenta las inversiones anteriores a la solicitud de ayuda, excepto las de acopio de materiales, honorarios técnicos y estudios de viabilidad que se realicen.

10. Una vez aprobada la solicitud de ayuda por el Departamento de Desarrollo del Medio Rural, las inversiones subvencionadas se deberán ejecutar en el plazo máximo de un año. Por causas justificadas y a petición del beneficiario, se podrá conceder una ampliación del plazo indicado.

11. Las inversiones subvencionadas deberán de mantenerse activas en la explotación durante un mínimo de 10 años cuando incluyan construcciones e instalaciones fijas así como plantaciones frutales, y 7 años si se trata sólo de adquisición de maquinaria agrícola.

12. Eraikuntza eta instalazio mota guztietarako, hirigintza legeriaren arabera egokitzea eta dagokion udal lizentzia lortzea beharrezkoa izango da.

13. Onuradunek egindako eraikuntza eta instalazioen aseguruia kontratatu beharko dute, berariaz eskatzen zaien kasuan.

17. artikulua. Subentziona daitezkeen inbertsioak.

Nekazaritza ustialekuetan subentziona daitezkeen inbertsioak honako xede hauetarako izango dira:

a) Nekazaritza eta abeltzaintzako eraikinak eta instalazioak eraiki, eskuratu edo hobetzeko, besteak beste:

— Nekazaritzako biltegiak.

— Abereen aterpeak.

— Abereak elikatze sistema automatikoak.

— Jezteko eta esnea hozteko robotak eta instalazio automatizatuak.

— Abeltzaintzako instalazioetako inguruko hesiak, erabilerrarako barrutiak, eusteko mahukak.

— Barazkiak eta fruituak hotzean kontserbatzeko kamerak.

— Nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioetan suteak detektatzeko eta sutatik babesteko sistemak.

— Abeltzaintzako ustialekuetan biosegurtasuna hobetzeko instalazioak.

b) Ekoizpen sistemetan berrikuntza teknologikoa dakarten, eta energia aurrezten eta ingurumena zaintzen laguntzen duten nekazaritzako makineria eta ekipo berriak erosteko, hala nola:

— Ongarri solido eta likidoak nahasteko eta banatzeko makineria.

— Tratamendu fitosanitarioetarako ekipoak.

— Solidoak eta likidoak banatzeko, arazketa tratamenduetarako eta simaurra eta mindak zabaltzeko makineria eta ekipoak.

— Baratzezaintzako ustialeku intentsiboetan barazki hondakinen konpostagailua.

— Abereen bazka nahasteko orga.

— Traktoreak, motokultoreak, atoiak, sega-makinak, bazka ekoizteko makinak, etab., nekazaritzan hasten diren nekazari gazteentzat bakarrik.

Subentzioaren xede den makineria nahitaez Landa Ingurunearen Garapenekeko Departamentuaren Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean inskribatu beharko da.

c) Baratzezaintza eta lorezaintza intentsiborako instalazioak, esate baterako:

— Tunelak eta berotegiak

— Ureztatze eta berokuntza instalazioak.

— Itzala emateko atorrak, eltxoen aurkako sareak, labore mahaia, tutoretze materiala, etab.

— Labore hidroponikoetako disoluzio elikagarrien arazketa ekipoak.

— Aire libreko baratzeetako instalazio finakoak.

— Urte anitzeko laboreen lehenengo landaketa (arrosak, astromeriak, etab.).

12. Será preciso para todo tipo de construcciones e instalaciones ajustarse a la legislación urbanística y obtener la correspondiente licencia municipal.

13. Las personas beneficiarias deberán contratar el seguro de las construcciones e instalaciones realizadas en los casos en que expresamente les sea requerido.

Artículo 17. Inversiones subvencionables.

Las inversiones subvencionables en las explotaciones agrarias corresponderán a las siguientes finalidades:

a) La construcción, adquisición o mejora de edificios e instalaciones agrícolas y ganaderas como:

— Almacenes agrícolas.

— Alojamientos ganaderos.

— Sistemas automáticos de alimentación del ganado.

— Robots e instalaciones automatizados de ordeño y refrigeración de leche.

— Vallados y cercados perimetrales de instalaciones ganaderas, recintos de manejo, mangas de contención.

— Cámaras de frigoconservación de productos horto-frutícolas.

— Sistemas de detección y protección de incendios en instalaciones agrícolas y ganaderas.

— Instalaciones que contribuyan a la bioseguridad en explotaciones ganaderas.

b) La compra de maquinaria y equipos agrícolas de primera adquisición, que supongan una innovación tecnológica en los sistemas de producción y contribuyan al ahorro energético y la conservación del Medio Ambiente como:

— Maquinaria de mezclado y distribución de fertilizantes sólidos y líquidos.

— Equipos de tratamientos fitosanitarios.

— Maquinaria y equipos para la separación sólidos - líquidos, tratamiento, depuración y de distribución de los estiércoles y purines en el terreno.

— Compostadoras de residuos vegetales en explotaciones hortícolas intensivas.

— Carro mezclador para alimentación del ganado.

— Tractores, motocultores, remolques, segadoras, maquinaria de producción de forrajes, etc, sólo para Jóvenes Agricultores de 1.ª instalación.

La maquinaria objeto de ayuda deberá inscribirse obligatoriamente en el Registro de Maquinaria Agrícola del Departamento de Desarrollo del Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

c) Las instalaciones para hortofloricultura intensiva como:

— Túneles e invernaderos.

— Instalaciones de riego y calefacción.

— Mantas de sombreo, mallas mosquiteras, mesas de cultivo, entutorado, etc.

— Equipos de depuración de soluciones nutritivas de los cultivos hidropónicos.

— Instalaciones fijas en huertas al aire libre.

— Primera plantación de cultivos plurianuales (rosal, astromeria, etc.).

d) Fruta arbolen landaketa, hala nola:

- Lurra prestatzea (mailatzeak eta zapaldatzeak).
- Lurra zulatzea eta landatzea.
- Zuhaitz landareak erostea.
- Eusteko egiturak.
- Ureztatzeko instalazioa.

— Landatutako saila babesteko sistemak (haize babes natural edo artifizialak, txingor sareak eta animalien kontrako itxiturak).

e) Desjabetze edo interes publikoa dela eta nekazaritza eta abeltzaintza eraikinen lekualdaketa.

f) Arkitektoen eta ingeniarien ordain-sariak, baita aurreko ataletako gastuei lotutako bideragarritasun azterketa eta txostenak ere.

18. artikulua. Baztertutako inbertsioak.

Foru dekretu honi jarraituz, ez zaie ondorengo inbertsio hauei laguntzarik emango:

- a) Baserri berriak eraikitze eta zaharrak birgaitzeko.
- b) Biltegiak eta abeltzaintzako aterpeak birgaitzeko obrak (egiturak, forjatuak, estalkiak, fatxadak, parrilladurak, etzalekuak, lotailu automatikoak, etab. hobetzea edo ordeztzea), baldin eta diruz lagundutako bestelako zaharberritze lanak egin badira eskaera egin aurreko azken 10 urteetan.
- c) Nekazaritzako produktuak prestatu, ontziratatu, merkaturatu eta sustatzeko instalazioetarako inbertsioak; akuikulturako, nekazalturismoko, nekazaritzakoa ez den dibertsifikazioko, energia berriztagarrietako, basogintzako makineriako, ikerketa proiektuetako eta abereen gaitzak erazteko inbertsioak; eta beste erakunde batzuek ezarritako laguntzak edo Merkatuko Erakunde Komunen esparruan emandako laguntzak jaso ditzaketen inbertsioak.
- d) Lehendik dagoen nekazaritzako makineria edo ekipoa bat ordeztzea, hobekuntza edo teknologia berrikuntza argi eta garbi justifikatzen ez bada, edota, ordezkatu beharreko makineria edo ekipoa erosi zenetik 10 urte baino gutxiagoko epean egin bada.
- e) Bigarren eskuko nekazaritzako makineria eta ekipoa erostea.
- f) Ekoizpen eskubideak, abereak eta urteko landareak erostea eta landatzea.
- g) Merkatuko Erakunde Komun bati jarraituz ezarritako ekoizpenaren murrizketen edo laguntza komunitarioen mugen gainetik, ekoizpena handitzera zuzendutako inbertsioak.
- h) Merkatuko ohiko irteera aurkitu ezin duten ekoizpenetarako inbertsioak. Merkaturatzeko ohiko irteerak honako hauekiko ebaluatuko dira:
- Dagozkion produktuak
 - Inbertsio motak
 - Gaur egungo eta aurreikusitako ahalmena.
- i) Ondasunak eskuratzeagatik edo fakturatutako zerbitzuengatik ordaindutako BEZa, eta, oro har, ordaindutako edozein zerga, tasa edo baimen.
- j) Gastu orokorrak, berandutza interesak, prozedura judizialak eta inbertsioaren ondorioz kontratatutako aseguruak.

d) La plantación de frutales como:

- Preparación del terreno (nivelaciones y abancalamientos).
- Ahoyado y otras labores de plantación.
- Adquisición de plantones.
- Estructuras de soporte.
- Instalación de riego.

— Sistemas de protección de la plantación como cortavientos naturales o artificiales, malla antigranizo y cercados contra animales.

e) El traslado de edificios e instalaciones agrícolas y ganaderas motivadas por expropiación o interés público.

f) Los honorarios de arquitectos, ingenieros, así como los estudios de viabilidad e informes vinculados a los gastos de los apartados anteriores.

Artículo 18. Inversiones excluidas.

No se concederá ayuda en virtud del presente Decreto Foral para las inversiones siguientes:

- a) Las obras de nueva construcción y rehabilitación de caseríos.
- b) Las obras de rehabilitación en almacenes y alojamientos ganaderos (mejora o sustitución de estructuras, forjados, cubiertas, fachadas, emparrillados, cubículos, autocapturas, etc), que hayan sido objeto de otras obras de rehabilitación subvencionadas dentro del período de 10 años anteriores a la solicitud.
- c) Las inversiones en instalaciones de elaboración, envasado, comercialización y promoción de productos agrarios, acuicultura, agroturismos, diversificación no agraria, energías renovables, maquinaria forestal, proyectos de investigación, erradicación de las enfermedades de los animales y cualquier otra inversión que pueda optar a las ayudas establecidas por otras Instituciones o a las ayudas prestadas en el marco de las Organizaciones Comunes de Mercado.
- d) La sustitución y reposición de maquinaria y equipos agrícolas que no justifiquen claramente una mejora o innovación tecnológica o se realice en un plazo inferior a los 10 años desde la adquisición de la maquinaria o equipo a sustituir.
- e) La adquisición de maquinaria y equipos agrícolas de 2.^a mano.
- f) La compra de derechos de producción, animales y plantas anuales y su plantación.
- g) Las inversiones destinadas a aumentar la producción por encima de restricciones de la producción o limitaciones de la ayuda comunitaria establecidas en virtud de una Organización Común de Mercado, regímenes de ayuda directa inclusive.
- h) Las inversiones destinadas a producciones para las que no puedan encontrarse salidas normales al mercado. La existencia de salidas normales al mercado se evaluará en relación con:
- Los productos de que se trate.
 - Los tipos de inversión.
 - La capacidad actual y la prevista.
- i) El IVA satisfecho por la adquisición de bienes o servicios facturados y en general cualquier impuesto, tasa o permiso pagado.
- j) Los gastos generales, intereses de demora, procedimientos judiciales y seguros contratados como consecuencia de la inversión.

k) Finantza gastuak eta bankuen abalak, jardueran has-teko egindako inbertsioetarako nekazari gazteei emandako hobaridun intereseko maileguei dagozkienak izan ezik.

19. artikulua. Diru laguntzen zenbatekoa.

1. Nekazaritza ustialekuetako inbertsioetarako laguntzak kapitaleko subentzio moduan emango dira.

2. Diru laguntzen zenbatekoa, diruz lagundu daitekeen inbertsioaren portzentajea

a) Nekazaritza eta abeltzaintza eraikuntzetarako eta instalazioetarako %30.

b) Nekazaritzako makineria erosteko %20.

c) Baratzezaintza eta lorezaintza intentsiboko inbertsioetarako %30.

d) Frutarbolen landaketarako %30.

3. Inbertsioak kalitate bereizgarri, jatorri izendapen edo ekoi-zen integratuko edo ekologikoko ziurtagirietan jasotako, edo ziurtagiri horiek lortzeko irizpideak betetzen dituzten ekoi-zenetara zuzenduta egonez gero, 2. puntuaren a), b), c) eta d) ataletan adierazitako laguntzak diruz lagundu daitekeen inbertsioaren balioaren %5a arte handituko dira.

4. Foru dekretu honen 25. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten nekazari gazteei instalazio ondorengo bost urteen barruan gauzatu diren Hobekuntza Planen esparruan aurreikusitako inbertsioetarako laguntza gehigarri bat emango zaie, eta diruz lagundu daitekeen inbertsioaren balioaren %5ekoa izango da.

5. Ustialekuaren titularrak ustialekuko nekazaritza eta ingurumen kontratu bat izenpetuz gero, diruz lagundu daitekeen inbertsioaren balioaren %5era arteko laguntza gehigarria eskuratuko du.

6. Ustialekuan dagoen abere zama edo proiektatutako inbertsioetatik ondorioztatzen dena bazkatarako azaleraren 5 ALU/ha-koa baino handiagoa baldin bada, ez dira aurreko hiru paragrafoetan (3, 4 eta 5) aurreikusitako gehikuntzak aplikatuko, eta diruz lagundu daitekeen inbertsioaren balioaren %5eko murrizketa aplikatuko da.

7. Desjabetze edo interes publikoa dela-eta nekazaritza eta abeltzaintza eraikin eta instalazioak lekualdatzekotan, lekualdaketa kostuaren eta desjabetzeagatik ordain-sariaren arteko aldea subentziona egingo da, inola ere, lekualdaketa- ren %30 gainditu gabe.

20. artikulua. Diru laguntzen gehieneko muga.

1. Urteko deialdi bidez ezarriko dira dagokion ekitaldian diru laguntzetarako xedatuko den aurrekontu kreditua, inbertsioen baloraziorako eraikuntza kostuei dagozkien moduluak, onuradun eta deialdi bakoitzeko gehieneko zuzeneko diru laguntza, eta eskaerak aurkezteko epeak eta baldintzak.

2. 19. artikuluan ezarritakoari jarraituz kalkulaturako subentziora onuradun eta urteko deialdiko gehieneko subentziora baino handiago den proiektuei dagokienez, hurrenez hurrenko deialdietan parte hartu ahal izango dute, exekuzioa proiektuaren bideragarritasun planean zehaztu beharko diren fase desberdinetan aldizka-aldizka ezarritako.

3. Nekazaritza ustialeku batek, foru dekretu honen pean, guztira 400.000 €-ko zuzeneko subentzioak jaso ditzake 2007-2013 aldian.

k) Los gastos financieros y avales bancarios, excepto los inherentes a los préstamos con interés bonificado concedidos a jóvenes agricultores para las inversiones realizadas con motivo de su incorporación

Artículo 19. Importe de las ayudas.

1. Las ayudas a las inversiones en explotaciones agrarias se otorgarán en forma de subvenciones en capital.

2. El importe de la subvención expresado en porcentaje del volumen de la inversión subvencionable será el siguiente:

a) Para construcciones e instalaciones agrícolas y ganaderas 30%.

b) Para adquisición de maquinaria agrícola 20%.

c) Para inversiones en hortofloricultura intensiva 30%.

d) Para plantaciones frutales 30%.

3. Si las inversiones están orientadas a producciones incluidas en distintivos de calidad, denominaciones de origen o certificado de producción integrada o ecológica, o que cumplan los criterios para su obtención, las ayudas indicadas en apartados a), b) c) y d) del punto 2 la ayuda se incrementará en un 5% del valor de la inversión subvencionable.

4. A los agricultores y agricultoras jóvenes que cumplan las condiciones establecidas en el artículo 25 de este Decreto Foral se les concederá una ayuda suplementaria para las inversiones previstas en el marco de los Planes de Mejora que se ejecuten dentro de los cinco años siguientes a su instalación, de un 5% del valor de la inversión subvencionable.

5. En el caso de que la persona titular de la explotación suscriba un Contrato agroambiental de explotación obtendrá una ayuda suplementaria de hasta un 5% del valor de la inversión subvencionable.

6. Si la carga ganadera existente en la explotación o la que resulte como consecuencia de las inversiones proyectadas supera las 5 UGM/ha. de superficie forrajera, no se aplicarán los incrementos previstos en los tres puntos anteriores (3, 4, y 5), descontándole además un 5% del valor de la inversión subvencionable.

7. En el supuesto de traslado de edificios e instalaciones agrícolas y ganaderas motivadas por expropiación o interés público, se subvencionará la diferencia entre el coste del traslado y la indemnización por expropiación, sin superar en ningún caso el 30% s/coste del traslado.

Artículo 20. Límite máximo de las ayudas.

1. Mediante convocatoria anual se establecerán el crédito presupuestario destinado a las ayudas en el correspondiente ejercicio, los módulos relativos a los costes de construcción para la valoración de las inversiones, la subvención directa máxima por persona beneficiaria y convocatoria, así como los plazos y condiciones de presentación de solicitudes.

2. En el supuesto de proyectos para los que la subvención calculada en base a lo establecido en el artículo 19 superase la subvención máxima por persona beneficiaria y convocatoria anual, podrán acogerse a convocatorias sucesivas, periodificando su ejecución en diferentes fases, que deberán detallarse en el Plan de viabilidad del proyecto.

3. El total de subvenciones directas que podrá percibir una explotación agraria acogiéndose al presente decreto foral, será como máximo de 400.000 € en el período 2007-2013.

21. artikulua. Emateko prozedura.

1. Laguntzak lehia konkurrentziaren prozedura erabiliz emango dira, dagoen kredituaren mugen barruan, eta aurkeztutako eskaera kopurua eta proiektuen interesa kontuan hartuta, eta interes hori ondorengo irizpide hauen arabera baloratu da:

a) Ustialeku berria sortzeko edo lehendik dauden ustialekuetan belaunaldi aldaketa egiteko lehenengo inbertsioak eskatzen dituzten nekazari gazteen proiektuak, lehenengo instalaziorako laguntzak jaso dituztenak edo eskatuta badituzte haiek lortzeko baldintzak betetzen dituztenak (*): 40 puntu.

b) Foru dekretu honetako 25. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten nekazari gazteek bultzatutako proiektuak, nekazaritza ustialekuko titular bihurtu ondorengo lehenengo bost urteen barruan (*): 25 puntu.

c) Nekazaritza ustialekuaren titularrak diren emakumeek bultzatutako proiektuak (*): 10 puntu.

d) Hazkunde potentzialtasuna duten azpisektoreetako inbertsioak izateagatik estrategikotzat jotzen diren proiektuak eta kalitate edo jatorri izendapenetan jaso, edota horiek lortzeko berezitasunak betetzen dituzten ekoizpenetara zuzendutako proiektuak: 20 puntu.

e) Ekoizpen sistemaren araberako puntuazioa:

— Ekoizpen Ekologikoko araudiak araututako ekoizpenak (egokitzapen fasea barne): 20 puntu.

— Ekoizpen Integratutako araudiak araututako ekoizpenak: 15 puntu.

f) Nekazaritza edo abeltzaintza ustialekuan sortutako simaur, minda eta bestelako hondakinak tratatzeko ekipotaerako inbertsioak: 10 puntu.

g) Kudeaketa tekniko-ekonomikoko programetan sartuta dauden ustialekuen titularrek bultzatutako proiektuak: 10 puntu.

h) Ustialekuko nekazaritza eta ingurumen kontratua izenpetuta duten nekazaritza ustialekuetako proiektuak: 10 puntu.

i) Ekoizpen metodoetan berrikuntza teknologikoa dakarten proiektuak: 10 puntu.

j) Esne-behien ustialekuak bultzatzeko edo hegaztien ongizatea hobetu eta arrautzak ekoizteko ustialekuak Kontseiluaren 1999/74/CE Direktibara egokitzeko inbertsioak: 10 puntu.

(*) Sozietate Zibilei dagokienez, kideen erdiak gutxienez baldintza hori beteko dute, eta, Merkataritza Sozietateei dagokienez, berriz, kapital sozialeko partaidetzaren %50 gutxienez baldintza hori betetzen duten pertsona izango da.

Aurreko irizpideen arabera puntu berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango dute onartutako inbertsio zenbateko handiena duten diru laguntza eskaerek. Hala ere, berdinketa desegin ez bada, lehentasuna emango zaie onuradun gazteenei».

Lau. 23. artikulua 2. atalaren bukaeran ondorengo paragrafoa eranstean da:

«2009ko abenduaren 4ko 1852/2009 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, ordainketa egiaztatuko da bankuko edo kontabilitateko laburpenen edo tituluen bitartez. Zenbatekoren bat eskudirutan ordaindu bada, ezingo da 3.000 euro baino gehiagokoa izan hornitzaile bakoitzeko eta, betiere, fakturekin batera hornitzaileek luzatutako kobratze ziurtagiriak erantsiko dira edo «eskudirutan jaso dut» esapidea eramango dute, data, sinadura eta kobratzailearen IFZ adierazita.»

Artículo 21. Procedimiento de concesión.

1. La concesión de las ayudas se realizará por el procedimiento de concurrencia competitiva, dentro de los límites del crédito existente, y en consideración con el número de solicitudes presentadas y el interés de los proyectos, interés que se valorará de acuerdo con los siguientes criterios:

a) Proyectos realizados por jóvenes agricultoras y agricultores que supongan las primeras inversiones para crear una nueva explotación, o dar continuidad generacional a explotaciones ya existentes, a los que se les haya otorgado las ayudas de primera instalación o habiéndolas solicitado cumplan las condiciones establecidas para su obtención (*): 40 puntos.

b) Proyectos promovidos por jóvenes agricultoras y agricultores que cumplan las condiciones establecidas en el artículo 25 de este Decreto Foral, dentro de los 5 primeros años después de su implantación como titulares de la explotación agraria (*): 25 puntos.

c) Los proyectos promovidos por mujeres titulares de la explotación agraria (*): 10 puntos.

d) Proyectos considerados estratégicos, por tratarse de inversiones en subsectores con potencialidades de crecimiento y que estén orientados a producciones incluidas en denominaciones de origen, distintivos de calidad o que cumplan las especificaciones destinadas a su obtención: 20 puntos.

e) Puntuación en función del sistema productivo:

— Producciones reguladas por la normativa de Producción Ecológica (incluida la fase de adaptación): 20 puntos.

— Producciones reguladas por la normativa de Producción Integrada: 15 puntos.

f) Inversiones en equipos destinados al tratamiento de estiércoles, purines y otros residuos generados en la propia explotación agrícola o ganadera: 10 puntos.

g) Los proyectos promovidos por titulares de explotaciones que estén integradas en programas de gestión técnico-económica: 10 puntos.

h) Proyectos de explotaciones agrarias que hayan suscrito el Contrato Ambiental de Explotación: 10 puntos.

i) Proyectos que supongan una innovación tecnológica en los métodos de producción: 10 puntos.

j) Inversiones destinadas a las explotaciones de vacuno de leche o a mejorar el bienestar de las aves y conseguir la adaptación de las explotaciones de producción de huevos a la Directiva 1999/74/CE del Consejo: 10 puntos.

(*) En el caso de Sociedades Civiles al menos la mitad de sus miembros cumplirán este requisito y en el caso de Sociedades Mercantiles por lo menos el 50% de la participación en el capital social pertenecerán a personas que cumplan este requisito.

A igualdad de puntos conforme los criterios anteriores, tendrán preferencia las solicitudes de ayuda con mayor importe de inversión aprobada y si persistiera el empate, primarán en primer lugar aquellos beneficiarios de menor edad.»

Cuatro. Se incluye el siguiente párrafo al final del apartado 2 del artículo 23:

